

MITOA, ARRAZOIA ETA GAZELAK

JOSE INAZIO IMAZ BENGOETXEA

Profesor Asociado de la UPV/EHU

ABSTRACT

■ *Zenbaki honetan Europako enplegu politikak guztiontzako enplegua lortu ote dezaketen aztertu eta eztabaidatu beharko genuke. Guztiontzako enplegua lortu nahi duten enplegu politika europear hoiek azken urteetan eztabaidatu dituzten neurrien artean, lan denboraren murrizketa eta banaketa izan da garrantzitsuenetako bat. Artikulu honetan neurri horri buruz hitzagitzen da, lan banaketari buruz dau den jarraera eta diskurtso ezberdinak aztertuz.*

■ *En este número deberíamos dedicarnos a analizar si las políticas de empleo europeas pueden conseguir el pleno empleo. En la década de los noventa, una de las medidas más discutidas en los debates sobre el empleo ha sido la reducción y el reparto del tiempo de trabajo. En este artículo se analizan las diferentes posturas y los diferentes discursos que podemos encontrar en el debate sobre el reparto del trabajo.*

■ *In this issue we should concentrate on analysing whether or not European employment policies are capable of achieving full employment. One of the most controversial subjects at employment debates in the 90s was the reduction and distribution of the working week. This article analyses the different stances and discourses involved in the debate on the distribution of work.*

«Los leones se unen, las gacelas compiten entre sí».
 (Imanol Zuberu, *El derecho a vivir con dignidad:
 del pleno empleo al empleo pleno*).

Europako enplegu politikak jende guztiarentzako enplegu bat ziurtatu ote dezaketen aztertu nahi da Lan Harremanak aldizkariko zenbaki honetan, eta 90. hamarkadan helburu hori lortzeko Europa mailan gehien eztabaidatu den neurrietako bat lan denboraren murrizketa eta banaketa izan da. Frantzian 35 orduko lanastea ezarri dute legez, eta Alemanian ere lan ordutegia murriztu egin da arlo gehienetan, nahiz eta kasu honetan murrizketa negoziazio kolektibo bidez lortu, legea aldatu gabe (kontutan izan behar da Alemaniako IG Metall sindikatuak Europako indartsuena dela, 2,7 miloi afiliatuekin). EAEn ere lan banaketaren inguruko eztabaida ezaguna egin da, oraingoz 35 orduko lanastea administrazio publikoan bakarrik lortu delarik. Baina jende guziak gauza bera esan nahi al du guztiontzako enplegua edo lan banaketa terminoekin?

Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle den Imanol Zuberok atera berri du gai honi buruzko liburu oso gomendagarri bat: «El derecho a vivir con dignidad: del pleno empleo al empleo pleno». Bere ustez, 80. eta 90. hamarkadatan guztiontzako enpleguari buruz hitzegitea ahaztu ondoren, liberalismoa langabeziarekin amaitu daitekeela esaten hasi da berriro ere. Zergatik aldatu jarreraz orain? Zergatik berreskuratzen da orain guztiontzako enplegua lortzeko aukerari buruzko eztabaida? Liberalismoak hogeitaz urte horietan lortu duelako nahi zuena, hau da, eskubidedun enpleguarekin amaitzea, jendeak prekaritatearen diskurtsoa eta ideologia onartu eta barneratzea, eta ondorioz, badakielako gaur egun guztiontzako enplegua lortuko balitz ere, kapitalaren interesak ziurtaturik egongo lirakekeela, ez bait litzake izango *pleno empleoa*, baizik eta *pleno sub-empleoa* (agian gaztelaniaz hobeto ulertzen da hitz-jokoa). Malgutasunari esker borroka irabazi du liberalismoak, gaur egungo enplegu berrien gehiengoak ez duelarik autonomiarik eskeintzen. Marx-ek «erreserba ejerzito» deitu zuen harek funtzionatzen jarraituko luke beraz egoera honetan, nahiz eta langabeziarik ez egon: jendeak berdin berdin onartuko luke kapitalak eskaturikoa, gero eta zailagoa izango bait litzateke baldintza onak (ordutegi, soldata, finkotasun...) dituen lanpostu bat bilatzea. Eskatu behar dena hortaz ez da enplegua bakarrik, baizik eta eskubidedun enplegu bat,

enplegu duin bat. Baina beti bezala, gauzak ikusteko modu asko daude, eta Imanol Zuberorenaz gain, badaude errealitatea aztertzeko beste modu batzu.

Juan Rossel eta Joaquin Trigo-ren ustez, Zubero bezalako jendeak gauzak nahastu baino ez ditu egiten. Soldata soziala, lan banaketa ea. proposatzen dituzte, baina azken batean mitoak baino ez dira proposamen horiek. Arrazoa erabiltzen badugu, enplegua sortzen ari dela ohartuko gara, eta ordutegi luzeenak dituzten herrialdeek (EE.BB.ak, Japon...) dituztela langabezia kopuru txikiak. Gauzak ikusteko beste modu bat. Jesus Neirak adibidez, lan banaketaren proposamena sozialismoarekin lotzen du, eta bai lan banaketaren proposamen zehatzak eta bai sozialismoak orokorki, ez lukete inongo etorkizunik izango, hilik bait daude: «Es un hermoso animal; en lo rizado de sus crines, en lo fino y reluciente de su pelo, se adivina el vigor de su raza, la generosidad y pureza de sangre. No tiene más que un defecto: está muerta».

Mittoa eta arrazoiaren artean arrazoa aukeratu behar omen da beraz. 1994-2000 tartean adibidez, Espainiako langabezia tasa %20tik %13ra jeitsi da. Beste hamar urte horrela jarraituko bagenu (urtero langabezia tasa %1 jeitsiaz), 2010an langabeziarik gabe ginatke. Nahikoa al da? Jendeak itxaron al ditzake hamar urte? (batzuk bai noski, baina %13 horri galdetu behar). Gainera, urtero %3-4 hazten jarraituko al dugu? (zeren hori da langabezia %1 jeisteko behar izan den hazkunde tasa sei urte hauetan). Caja Laboral-ak argitaratu berria du «Economía Vasca. Informe 1999» txostena, eta bertan esaten denez, lanpostu sorrera mantsozten ari da, eta mantsotu egingo da, petrolioaren gorakadak suposatu duen inflazio igoraren ondorioz. 2020 arte itxaron behar ote dugu agian? Eta gainera, ahalmena edukita ere, desiagarri eta komenigarria al da urtero %3-4 hazten jarraitzea? (ONU behin eta berriz esaten ari da arazo ekologikoak konpondu beharrean areagotzen ari direla, baina gure iturrietan ur garbia dagoen bitartean...). Espainiako eta EAeko langabezia %20tik %13ra jeitsi da 1994-2000 tartean lehen esan dugun bezala, baina enplegu berri horien %90 behin-behinekoa da gainera (hau da, hiru langiletik bat behin-behineko kontratu batekin ari da lanean), eta kontratu finko gutxi hoiien (kontratu berrien %10) %75 diru publikoarekin subentzionatzen da (Rosell eta Trigo-ren ustez, 1996-2000 tartean 1,6 miloi lanpostu sortu dira, hoietatik 1,2 miloi mugagabe edo indefinituak direlarik. Eustat eta INEMek ez dute horrelakorik esaten). Beraz, horrela jarraituta ere, 2010an lortuko litzatekeen guztiontzako enplegu hori, ez al litzateke Zuberok esango lukeen bezala *pleno empleoa* beharrean, *pleno sub-empleoa* izango?

Egoera honetatik ateratzeko lan banaketa da proposatzen den neurrietako bat (neurri pakete berean joango liratekeelarik soldata soziala bezalako beste neurri batzuk). Sindikatuek 35 orduko lanasteak gauza asko konponduko litzuzkeela diote, eta enpresariak berriz ezetz. Lan Harremanetako Kontseiluan lortu zen ordezkapen kontratuak, aparteko orduak eta Aldi Baterako Lan Enpresei buruzko akordioa (1999ko urtarrila), baina 35 orduko asteari dagokionean enpresariak ez

dute amore eman nahi. Zergatik ote? Batzuentzat ona delako eta besteentzat txarra? Ba ziurrenik bai. Europa mailan Frantzia ari da 35 orduko lanastearen legea frogatzen, eta jendea zai dago zer gertatuko ote den (batzuek frogak porrot egingo duen esperantzarekin, eta besteak froga hori adibide moduan erabiltzeko esperantzarekin). Dena den, lan orduak murriztu eta banatzeko beste moduak ere frogatu dira: konbenio kolektibo bidez Alemanian, Dinarmakan urte sabatikoaren bidez, Holandan denbora partzialeko kontratuen bidez... Artikulu honetan lan banaketari buruz hitzegiten denean bereiztu daitezkeen hiru jarrera nagusiak azaldu nahi nituzke, eta bakoitzaren ustez nola lortu daitezkeen langabeziarekin amaitu eta guzientzako enplegua. Lehenengo perspektiba lanaren berrantolaketaren perspektiba litzateke. Gauzak aldatzea gauza guziak berdin jarraitzeko (gauzak ongi baldin badoaz, zergatik aldatu?). Bigarren perspektiba erdian kokatuko litzateke: bai, baino... Hirugarren perspektiba da nire ustez ausartena, baina ausardia hori gehiegizkoa da zenbaiten ustez. Lehenengo perspektibaren ustez, XXI mende haseran, bada garaia mitoak utzi eta arrazoia aukeratzeko (lan banaketaren proposamena mito bat bakarrik bait da ikuspegi honen ustez). Gertatzen dena da hirugarren perspektibak ere arrazoiak erabiltzen dituela, nahiz eta zenbaiten ustez arrazoia heurena bakarrik izan.

Mittoa eta arrazoia

Izen hori eman diote Jaun Rosell eta Joaquín Trigo-k lan banaketaren aurkako arrazoiak biltzen dituen heuren liburuari: «El reparto del trabajo: el mito y la razón». Esan bezala, hor daude lan banaketaren aurkako arrazoi guziak. Azkeneko 150 urteetan lan ordutegia murriztu egin da. Antolakuntza eta teknologi berrikuntzak produktibitate hazkundera ekarri dute. Gero eta jende gehiagok lortu du enplegu bat, soldadak igo egin dira, lan baldintzak hobetu, Ongizate Estatua finantzatu da eta produktuen eta zerbitzuen kalitatea hobetu egin da. Dena batera. Prozesu honetan behin eta berriro sortu dira lan ordutegia legez murrizteko eskakizunak. Baina eskakizun horiei kasu egin zaien bakoitzean, langabezia igo egin da. Hau da adibidez Frantzian 1982an gertatu zena, 40 orduko lanastetik 39 ordukora pasatzean, opor-asteak ere gehitu egin zirelarik (lau beharrean bost). Ez zen espero zen adina enplegu sortu, eta gainera neurriak eragin negatiboak izan zituen produkzio kostuetan, eta ondorioz konpetibitatean. Lana banatzeko beste modu batzu ere frogatu dira, baina neurri hauek inposatuak izan diren guzietan porrot egin dute: aurrejubilazioen kasua jar genezake adibidetzat, helburua gazteak lan merkatuan sartzea litzatekeelarik. Espainian aurrejubilazioen baliabidea askotan erabili izan da, eta ondorioak hor daude: herrialde industrializatuen arteko gazte-langabezia handiena.

Rosell eta Trigoren ustez, lan banaketa defendatzen dutenak zuzenak ez diren hiru hipotesitan oinarritzen dute heuren diskurtsoa: a) Enplegu kopurua finkoa

da. b) Pertsonak heuren artean trukatu daitezke. c) Produkzio bera jende gehiagorekin egiteak ez du kostu gehigarririk suposatzen, edo kostu horiek erraz kompensatzen dira. Baina errealitatean, enplegu kopurua aldatu eta hazi egiten da, hazkunde horren aurkako erabaki politikoak hartzen ez badira behintzat ¹. Pertsonak ezberdinak dira, eta kualifikaziorik gabeko lanetan bakarrik elkartrukatu daitezke. Eta logikoaenez, produkzio kopuru berdina jende gehiagorekin egiteak kostuak igotzen ditu. Lan banaketaren proposamena erakargarria da, baina ez du funtzionatzen. Enplegu tasa altuena duten lurraldeak lan ordutegi luzeenak eta teknologia aurreratuenak dituzte: Estatu Batuak, Suiza eta Japon (zergatik ez dute begiratzen Alemania, Frantzia edo Dinamarkara?). Aisialdi gutxiago duteenez, aisialdi hori gauzak erosten kontsumitzen dute, denbora propioa kontsumitzeko denborarik ez bait daukate. Laneguna luzeagoaenez, eskulanaren prezioa errezago amortizatzen da, eta ondorioz kostu unitarioak murriztu egiten dira (Europar 100.000 pezeta irabazten dituen langile batek 100 ordutan 100 pieza egiten baditu, pieza horietako bakoitzaren eskulan kostua mila pezetakoa da, baina 100 ordu lan egin beharrean 150 ordu lan egingo balitu, 125 pieza eginaz, pieza bakoitzaren eskulan prezioa txikiagoa litzateke). Ondorioz, produktuaren prezioa merketu egiten da, gehiago saltzen da, gehiago produzitu behar da, eta azkenean enplegu gehiago sortzen dira.²

Perspektiba honen ustez, Espainian azken urte hauetan gertatu denak garbi erakusten du nola hazkunde ekonomikoak enplegua sortu dezakeen, eta nola ez dagoen beste moeta bateko neurri laguntzaileen beharrik. Hala ere, zenbait Komunitate Autonomoetan lan denboraren murrizketa eta banaketaren aldeko neurriak hartu dira (Andaluzia, Madrid, EAE...). Rosell eta Trigoren ustez ez dute inolako emaitza positiborik eduki neurri hauek. Lan banaketak kostuak igotzen ditu, eta horrek eragin negatiboa izango luke konpetibitatean. Eta gainera prestakuntzaren arazoa legoke: ekonomia berriak, gero eta gehiago, prestatuak langileak behar ditu. Orain ere arazoak daude zenbait lanpostu betetzeko moeta horretako langileak bilatzen ez direlako, eta langile horien ordutegia murriztuko balitz, arazoa okertu egingo litzateke konpondu beharrean. Espainian enpresa

¹ Hona hemen diskurtso honen ezaugarri garrantzitsuenetariko bat: hobe da erabaki politikoak ez hartzea, politikak pakean utzi behar du ekonomia. Merkatuak eta ekonomia libre bizi behar dute (hortik liberalismo izena). Merkatua eta ekonomia lirakeke arrazoia; Estatu eta politika mitoa. XXI. mende haseran garbi dago arrazoia aukeratu beharko genukeela. Ronald Reagan-ek esan zuen bezala, «governua arazoa da, ez irtenbidea». Carlos Rodriguez Braun-ek ederki azaltzen ditu ideia hauek bere «Estado contra mercado» liburuan.

² Hori nahi al dute beraientzako Rosell eta Trigo-k? Ordu gehiago lan egin? Aisialdi gutxiago eduki? Imanol Zuberok Eduardo Galeanori «lapurtzen» dion esaldiarekin ados nago: «debemos impulsar un mundo donde los economistas no llamarán *nivel de vida* al nivel de consumo, ni llamarán *calidad de vida* a la cantidad de cosas; donde la comida no será una mercancía, ni la comunicación un negocio, porque la comida y la comunicación son derechos humanos; donde nadie morirá de hambre, porque nadie morirá de indigestión».

bakoitzak 4,6 langile ditu batzbestean, eta horrek oraindik ere zailagoa egiten du lan banaketa. Rosell eta Trigo-ren ustez, lan banaketak arazoak bakarrik ekarriko lituzke. Lan kostuak igoko balira (soldata igoeraren ondorioz, edo soldata berdinarekin lan ordutegia murriztearen ondorioz), kapitala lanaren ordean makinak sartzen saiatuko litzateke, eta horrek batez ere prestakuntzarik gabeko langileen izango luke eragin handiena, lana bilatzeko zailtasun handienak dituztenengan. Lan banaketak lortu nahi duen helburuaren aurkako emaitza lortuko luke.

Rosell eta Trigo-ren ustez, gaur egungo ekonomia irekietan (irekiak kapital mugimenduentzat izango dira, zeren Algeziras-eko *pateretan* datoztenentzat ez dira horren irekiak) ez dauka zentzurik orain dela 150 urteko ideiak defendatzen aritzea, enpleguaren %60 zerbitzuetan ari denean (eta? zerbitzuetan aritzeak lan baldintza onak suposatzen al ditu ba?), eta lan ordutegia orain dela mende eta erdikoaren erdia denean (zer esan nahi du horrek? Hortik behera ia ez dela behin ere murriztuko?). Lan banaketaren proposamenak oinarri ekonomiko oso ahula dauka (baina, nork esan du irizpide ekonomikoak direnik garrantzitsuenak? Nork esan du gizarte irizpide ekonomiko horietan oinarritu behar dugunik? («nuestra obligación fundamental no es la de crear riqueza, sino la de crear sociedad» Zubero, 2000: 302). Lehenengo perspektiba honen ustez (neoliberalismoaren diskurtsoa azken batean) mitoak utzi eta arrazoien esparrura pasa beharko genuke (gertatzen dena da, beste batzuentzat mitoak lehenengo ikuspegi honek proposatutakoa dela).

Perspektiba honen ustez EE.BB. lirateke jarraitu beharreko adibidea:

Hay dos sistemas de trabajo radicalmente opuestos, el extremo europeo es el menos eficiente y, quizá, un término no intermedio, pero sí más estudiado y mejor, podría dar resultados sociales mejores. En el sistema europeo la entrada en el mercado de trabajo es difícil y la salida tan costosa que desincentiva la contratación sin impedir la generación de paro, está plagado de rigideces, intervencionismo, elevados costes sociales y grandes subsidios. El sistema norteamericano, en cambio, se basa en su gran flexibilidad. Mientras Europa defiende lo social, los EE.UU. defienden el empleo existente y crean más puestos de trabajo (...) Según un reciente informe del FMI, los principales elementos diferenciadores entre la zona euro y los EE.UU. están en la estructura de la negociación salarial, en el rigor de la normativa laboral en materia de flexibilidad contractual y protección del empleado, así como en la generosidad de los subsidios al desempleo y la posibilidad de mantenerlos mientras se rechazan ofertas de colocación, cuando las condiciones ofrecidas son distintas a las deseadas (Rosell eta Trigo, 2000: 196-197).

Erraz atera daitezke ondorioak: 1.- «En el sistema europeo la salida del mercado de trabajo es tan costosa que desincentiva la contratación»→ondorioa: langileak kaleratzea merkeagoa izan beharko luke. Aspalditik ari dira enpresariak Euskal Herrian eta Espainian hori eskatzen, eta PPek gehiengo absolutoa duenez legealdi honetan... Badazpada ere, hasi dira, propaganda egiten, eta lurra presta-

tzen (Lan Ministroaren adierazpenak, zenbait egunkarietako editorial eta azterketa ekonomikoak... –EAEn El Correo eta Diario Vasco adibidez–). Gainera, OCDE ere aspalditik ari da gauza bera errepikatzen, eta OCDEek esaten badu... 2.- «Los principales elementos diferenciadores entre la zona euro y los EE.UU. están en la estructura de la negociación salarial, en la normativa laboral, la protección del empleado, así como en la generosidad de los subsidios al desempleo»→ondorioak: europarrak soldata gehiegi eskatzen dugu, eta soldata negoziatzeko bidea zentralizatuegia da. Negoziazio hori deszentralizatu egin behar da, enpresa mailan negoziatu beharko litzatekeelarik (horrela indar gutxiago bait daukate langileek); lan munduan legeak ezartzea eta langileak babestea txarra da; eta langabezia dagoenari ez litzaioke dirulaguntzarik eman beharko, modu horretan edozein enplegu onartu beharko bait luke, edozein soldata, edozein ordutegi, eta edozein lan baldintza. 3.- «El sistema europeo está plagado de rigideces, intervencionismo y grandes costes sociales. Europa defiende lo social»→ondorioa: ez da ona gizartea defendatzea. Gizartea defendatzearen aitzakiarekin ekonomiari mugak jartzen hasten direnak, arazo ekonomikoak sortzen dituzte, eta azkenean arazo ekonomikoek arazo sozialak sortzen dituzte, lortu nahi zenaren aurkakoa lortuz. OCDEren «El impuesto sobre los salarios 1999-2000» txostenak adibidez (2001), Europan soldata jasaten duten gehiegizko presio fiskala slatzen du. Bi soldata eta ume dituen bikote batek Espainian urteko 205 lan-egun oso-osorik Haziendarentzako lan egiten ditu (hau da, uztailak 25 arte Haziendarentzat lan egiten du). Soldata bakar bat balu bi seme-alaba dituen horrek, 11 egun kotizatuko lituzke (apirilak 21 arte); eta seme-alabik gabeko ezkongabe batek, 135 egun (maiatzak 16 arte). Horregatik, neoliberalismoaren ustez, ekonomiari eman behar zaio lehentasuna, ekonomia ongi baldin badoa gizartea ere ongi joango delako. Lehenago ere aipatu dudan Carlos Rodríguez Braun-ek adierazten du oso ongi gizartea-politika-Estatua/ekonomia-merkatua harremanari buruzko liberalismoaren jarrera. Ronald Reagan-i arrazoia emanez zera dio: «El Estado ha pasado de ser la gran solución social a ser el principal problema de nuestro tiempo». Berak idatzitako edozein orrialde-tatik atera daitezke gaur egungo liberalismoaren jarrera laburtzen duten aipamen zuzen eta probokatzailak. Nik horietako bat aukeratu dut:

Un filósofo norteamericano dijo que en el fondo todos somos liberales clásicos, en la medida en que, por ejemplo, afirmaremos enfáticamente que la violación y la esclavitud y el robo están mal. No admitiremos en esos casos argumentos utilitarios (que se compare el dolor del individuo violado con el placer del individuo violador), ni democráticos (que una mayoría del Parlamento apruebe esclavizar a un grupo de personas), ni redistributivos (que robar está bien si el ladrón es más pobre que la víctima). Las tres posiciones indicadas entre paréntesis en la última oración serían rechazadas por una cuestión de principios. Ahora bien, cuando pasamos al Estado intervencionista y redistribuidor esos principios ya no parecen tan firmemente asentados, y de ahí la importancia de mantenerlos en todos los casos, incluso cuando el poder pretenda quebrantarlos en aras de la solidaridad o la justicia social. (Rodríguez Braun, 2000: 116).

Beraz, justizia sozialaren izenean lan banaketa, soldata soziala, ea. defendatzen ditugunok, bortxatzaileak, esklabutzaaren aldekoak eta lapurrak gara. Zergak mantentzea edo igotzea (ez denei, batzuei bakarrik) defendatzea, bortxaketa eta lapurreta litzateke. Lan denbora murriztu eta lanpostu berriak eskatzea esklabutza defendatzea. Rodríguez Braun-en ustez, helburuak ez ditu bitartekoak justifikatzen. Baina ez al da gehiegizko eta lekuz kanpoko konparaketa bat? 2.000. urtean, Espainiako bost banku eta aurrezki kutxa handienek billoi bat pezeta irabazi dituzte, 1999an baino %30 gehiago (806.400 milloi): BSCH3k 375.723 milloi, BBVAk 371.388 milloi, La Caixa-k 145.553 milloi, Banco Popularrak, 81.622 milloi, eta Caja Madrid-ek 71.478 milloi. Gizarteak (Estatuaren bidez) ez al dauka eskubiderik irabazi horien zati bat eskatzeko? Nondik datoz bada irabazi horiek? (batez ere hiritarrek eskaturiko kredituetatik, eta hiritarrek ordainduriko negozioetatik). Azkar bezalako garraio enpresa «txiki» batek 2000. urteko lehenengo bederati hilabete horietan 3.000 miloi irabazten baditu, gizartea-Estatuak ez al dauka zeresanik irabazi hoietan? Nork ordaintzen ditu Azkar-en kamioiak ibiltzen diren autobideen konponketak? Telefonika bezalako enpresa ezagun batek (Espainian diru gehien irabazten duen enpresetako batek), efikazia eta konpetibitatearen izenean milaka langile kalera bota ondoren, hantzeko langile kopurua sub-contratatzen badu... Nork ordaintzen ditu kaleratutakoen langabezia soldatak edo prestakuntza ikastaroak? (gizartea-Estatuak. Eta gainera Telefonikak tranpa egin dio gizarteari: ez du jendea kaleratu jende hori behar ez zuelako, baizik eta eskubidedun enplegu finkoarekin amaitu nahi zuelako. Egin duena izan da enplegu onak prekario bihurtu, modu horretan irabaziak handituz, eta heuren gizartearekiko konpromezua leunduz –orain askoz ere errezagoa izango bait da oporrak, jai-zubiak, gaixotasu-bajak ea. ez ordaintzea: oporren aurretik kontratua moztu, eta gero berriro kontratatu. Sindikatuekin arazoetan sartu gabe, iadanik Telefonikako langileak ez direnez... Eta gainera langileak ez dute orain horrenbeste eskatuko, behin-behineko kontratuekin daudenez...–. Non geratzen da gizartearekiko eskatzen duzun konpromezua horrelako kasuetan, Rodríguez Braun jauna?). Gipuzkoako enpresen %95ak irabaziak izan zituzten 1999an. Petrolerak gasolinaren prezioa igotzen aritu dira urte osoan, eta Repsol-YPF enpresak, 2.000. urtean 404.151 milloi irabazi ditu, iaz baino %14 gehiago, sekula Espainiako enpresa batek urte batean irabazi duen diru kopuru handiena (bide legal-aitortuetaik behintzat; banku handiak, Endesak eta Telefonikak jarraitzen diote irabazien ranking-ean). Eta irabazi hoiarren arrazoiaren artean «petrolioaren prezio gorakada» aipatzen du enpresak). Nork ulertu eta onartu dezake hori? Garbi dago nork ordaindu duen petrolioaren gorakada. Eta gainera zergak jeistea eskatzen dute...

Bai, baino...

Bigarren diskurtsoak onartzen du lan banaketak enplegua sortu dezakeela, edo gutxienez enplegu duina banatzeko balio dezakeela, prekaritatearen aurka borro-

katuz (Espainiako eta EAeko langileen %33ak behin-behineko kontratuak dauzka), baina modu leun batean proposatu behar dira gauzak, zeren enpresariak haserretzen badira, beste norabaitera joango dira, eta orduan lan banaketak ez du ezertarako balioko (Frantziako enpresariak oraingoz behintzat ez dute inora aldegin, gu baino herri aberatsagoa izaten jarraitzen dute –materialki–, eta gainera langileek astero bost ordu gutxiago lan egiten dituzte. Non dago arazoa?). Ba arazoren bat egongo da, zeren sozialdemokrazia berriaren adierazle ezagunenetarikoak diren Bill Clinton eta Tony Blair-ek ez dute lan banaketa aipatu ere egiten. Guztiontzako enplegua beste era batetara lortu daitekeela pentsatuko dute, gauzak gehiegi aldatu gabe, eta enpresariak gehiegi haserretu gabe. Zein da bide hori? Hazkunde ekonomikoa, prestakuntza, teknologia berriak... Eta zein dira orduan sozialdemokrazia berri honen (Anthony Giddens soziologo ezagunak «third way» edo «hirugarren bidea» izena eman dion sozialdemokrazia berri honen) eta liberalismoaren arteko ezberdintasunak? Zaila jarri digute joko (egunkarietan bi argazki berdina-jartzen dizkigutenean bezala, heuren arteko ezberdintasunak bilatu behar direlarik)³. «Un nuevo contrato para el bienestar. La propuesta laborista» (1998) dokumentua aztertzen badugu adibidez, ez da lan banaketa aipatu ere egiten. Ezberdintasun sozialak eta bazterketa soziala areagotzen ari direla onartzen da, eta gure gizarteetan langabezia dela ezberdintasun eta bazterketa horiek eragiten dituen faktore garrantzitsuenetarikoa. Baina sozialdemokraziaren tradizioa jarraituz, aldaketa txikiak proposatzen dira, aldaketa hoi bidez pixkanaka gizarte justuago eta berdina lortzeko, baina gizarte eredu zalantzan jarri gabe. Izan ere, lan banaketak jenda legez behartzea eskatuko luke, eta behartze hori arriskutsua izan daiteke (eta ez al da arriskutsua jenda enplegurik gabe, eta beraz diru-sarrearik gabe bizitzera behartzea?). EAeko Lan Sailburu izandako Ramon Jauregui eta Francisco Egea sozialistak honela azaltzen dute arazoa:

La imposición legal, por sí misma, no genera una dinámica colectiva. Todo el mundo no puede avanzar al mismo paso y al mismo tiempo. Una iniciativa colectiva sólo puede funcionar si los actores sociales comparten una concepción común del tiempo productivo, y coinciden en un modelo sociocultural de organización del tiempo social y la vida cotidiana, como ocurre en el caso de Dinamarca (1998: 212).

³ James Petras-en ustez, Hirugarren Bidea ardo zaharra botila berrietan zerbitzatzea bezala da. Giddens-en babes akademikoarekin, Blair eta Clinton-ek bultzatu duten korrante ideologiko hau neoliberalismo eta sozialismoaren arteko erdibide bat bezala aurkeztu dute. Baina azkenean «solo es una continuación y extensión del neoliberalismo de la Vieja Derecha a través de simbolismos populistas vacíos». Hirugarren Bidaren izenean, Blair eta Clinton-ek osasun eta hezkuntza publiko programak eta programa sozialak murriztu dituzte, eta aberastasuna eta boterea konzentratzeko erreztasunak eman dituzte: «No es la Vieja Derecha porque defiende una retórica humanitaria. Se ha apuntado al Gran Negocio, aunque disimulado por razones electorales» (Petras, 1999: 162-164). Argitaratu berria da liburu bat Hirugarren Bide hori zer ote den aztertzeko: «Las Terceras Vías» (Pérez Adán: 2001)

Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle den Antonio Riveraren ustez, lan banaketa defendatzen dutenek, zenbaitetan erresistentziarako jarrera zurrunik hartzen dituzte (laugarren eta bostgarren lan-txanden aurkako edo Aldi Baterako Lan Enpresen –ABLE– aurkako borroka, patronalak lan denboraren liberalizazioa lortzeko egin nahi dituen ahaleginen aurkako borroka...). Baina jarrera hauekin ez da ezer lortzen. Gauza gehiago lortzen dira jarrera praktikoekin (bigarren perspektiba): lan denboraren liberalizazio onartu, beste era bateko neurrien truke: soldatak igotzea, kontratu berriak... Bigarren eta hirugarren perspektiben arteko diferentzia jarrera zurrunik eta praktikoen arteko diferentzia da beraz, eta gauza gehiago lortuko ditu langilegoak jarrera praktikoekin. Gizarte aldaketa bai beraz, baina erreformaren bidez, ez iraultza defendatuz (azkenean ez bait litzateke ezer lortuko). ABLE-en kasuan, hobe da enpresa hauek onartu eta horren truke kontratu hoien kontrol sindikala eta langileen horien baldintzak hobetzea lortzea, enpresa horien aurkako alferrikako borroka batean denbora galtzea baino. Era horretan merkatuaren logika onartuaz (kasu honetan ABLE bidezko kontratuak), egoera txarrean dauden langileen baldintzak hobetzen dira, eta beste edozein modutan gutxiago lortzen da:

La postura pragmática es la que pasa por ser la más razonable y la más adecuada a los tiempos que corren (...) El sindicalismo debiera plantearse ese hecho y jugar con inteligencia en el marco que dibujan el resistencialismo y el pragmatismo. El primer extremo conduce a morir gloriosamente, pero morir seguro; el segundo a mantener algo perdiendo de nuevo lo principal: el control (1999: 31 eta 33).⁴

Liberalismoak lan denboraren murrizketa beharrean lan denboraren berranolaketa defendatzen du: lan ordutegia liberalizatzea, malguagoa egitea, produkzio beharren arabera antolatu eta aldatu ahal izateko. Hirugarren perspektibaren ustez, liberalizazio edo arauak kentzea, indartsuenaren aldeko neurria da beti bezala, eta ahulenak suertatuko lirakeke kalteturik kasu horretan. Lan denboraren berrantolaketa onartzea enpresei abantaila gehiegi ematea litzateke. Baina sozial-demokraziaren ustez, ezin da dena eta bapatean eskatu. Lan denboraren murrizketa lortu nahi bada, trukean zerbait eskeini behar zaie enpresariei: lan denboraren murrizketa saltzeko beharrezkoa da lan denboraren berrantolaketa (lan-txanda berriak, igande eta jaiegunetan lan egitea, gauetz lan egitea, aste batean 50 ordu edo gehiago lan egitea eta ordainetan beste aste batean egun bat edo bi jai edukitzea...) onartzea, Frantzia gertatu den bezala. Lehenxeago ere aipatu dudan Jaurregui, Egea eta De la Puerta-ren liburuan adibidez (lehenengo biak PSOEko goi

⁴ Hirugarren perspektibatik honela erantzuten diote Santos eta Calavia-k: «La primacía de lo económico en estos enfoques es muy evidente (...) Se pretenderá vender como una buena estrategia de reparto de empleo los contratos a tiempo parcial, temporales, el subempleo, el paro parcial, los horarios flexibles, más turnos y otras formas proempresariales, ¡el pleno empleo al alcance de la mano!» (1998: 17 eta 19).

kargu eta Lan Sailburu izandakoak EAEn), sindikatoek lanaren berrantolaketa amu bezala erabiltzea proposatzen da: lan denborari buruzko azken urteetako eztabaidan enpresariak eta sindikatoak ezin dute akordio batetara iritsi, bakoitzak gauza ezberdin bat defendatzen duelako, eta inor ez dagoelako prest besteak proposatzen duen zerbait onartzeko. Enpresariak ez dute sindikatoek defendatzen duten lan denboraren murrizketa onartu nahi, enpresaren interesen aurka doalako. Sindikatoek ordea, ez dute lan denboraren berrantolaketa onartu nahi, enpresaren interesak bakarrik bilatzen dituelako, eta langilegoak lan denboaren kontrola galduko lukeelako. Eta zergatik ez onartu bi gauzak? Enpresariak lan denbora murriztea onartu dezakete berrantolaketa lortzearen truke, eta sindikatoek berrantolaketa onartu dezaketa 35 orduak eta beste neurri batzu lortzearen truke. Gaur egungo egoeran konpetibitatea mantentzea behar-beharrezkoa da, eta horretarako enpresariari produkzioa antolatzeko malgutasuna eskeini beharko litzaieke, eskaera aldaketen arabera lanordu gehiago egiteko aukera emanaz adibidez. Baina gero, orain arte bezala, dirutan ordaindu beharrean «aparteko ordu» horiek, aisialdiarekin ordaindu beharko lirateke. Hemendik dator zenbait autorek lan banaketari buruz hitzegitean erabiltzen duten 2RT kontzeptua: lan denboraren murrizketa eta berrantolaketa, gazteleraz «reducción y reordenación del tiempo de trabajo» bait da, eta hortik dator bi R-en ideia hori. Sozialdemokraziak Estatu-politika-gizarteak ekonomia-merkatuan partehartzea defendatzen du, baina partehartzearen beharrak ez du suposatzen gizarte osoari lan banaketa inposatu behar zaionik. Tarta jende gehiagoren artean banatzearen ideia ez da posible, Ralf Dährendorf-ek esango lukeen bezala, gutxi batzuek gozatzen duten aberastasun mundu bat, jende guziarentzako pobrezia bihurtzea suposatuko lukeelako («transformar un mundo de abundancia para unos pocos en un mundo de escasez para todos»). Hori ez da beraz irtenbidea. Hazten jarraitu behar dugu, eta horretarako beharrezkoa da enpresariak beharrezkoak dituzten baldintzak eskeintzea, eta hazten jarraitzeko malgutasuna behar badute, malgutasuna eskeini behar zaie, tartak hazten jarraitu ahal izateko, eta modu horretan jende gehiagok jan ahal izateko. Lan denboraren antolaketa ere malguagoa bihurtu behar da, eta malgutasun neurri horien artean legoke denbora partzialeko enpleguak sustatzea (lan egiten denaren arabera irabaziaz, eta ez hirugarren perspektibak proposatzen duen bezala, gutxiago lan egin eta berdin irabaztea).

Denbora partzialeko enpleguen proposamenean ere sozialdemokrazia ados dago liberalismoaren diskurtsoarekin. Begiratu dezagun Holandara: azken urteetan Europako beste herri batzuetan baino askoz enplegu gehiago sortu dira, langabezia Europako batazbestekoa baino beherago ezartzea lortuz, nahiz eta biztanleria orokorrean Europako batazbestekoa baino gehiago hazi, eta nahiz eta aktibitate tasa (batez ere emakumeena), Espainiako eta EAeko batazbestekoa baino askoz ere handiagoa izan (hau da, askoz ere emakume gehiagok egiten dutela «lan» ordainduriko lanpostu batean). Dena denbora partzialeko kontratuei esker. Kontratu hauen ugaritzeari esker, astean lan egindako ordu kopurua

%12 jeitsi da 1983-1994 tartean (Espainian epe horretan %3 murriztu den bitartean). 1994an, Holandan enplegu bat zuten langileen %36 denbora partzialeko kontratu batekin ari zen lanean. Hirugarren perspektiba kritiko azaltzen da ordea proposamen honen aurrean ere: denbora partzialeko kontratuek langabezia langileen artean konpontzea lortzen dute, enpresariak ez dutelarik partehartzen esfortzu horretan. Enpresak irabazi berdinekin jarraitzen dute, eta gainera lan denbora antolatzekeo malgutasuna (boterea eta kontrola) lortzen dituzte. Denbora partzialeko kontratuek langabezia langileen artean banatzea suposatzen dute beraz, eta ondorioz azken batean denbora partzialeko langabezia litzateke. Lan banaketa beste gauza bat litzateke (gainera kontratu hauek normalean emakumeei zuzenduak daude –Holandan ere bai–, eta horrek lanaren banaketa sexual eredu tradizionala mantentzea suposatzen du: gizonezkoa egun osoko enplegu batean, eta emakumea denbora partzialeko enplegu batekin, ondoren etxeko lanak egin ahal izateko –«Fundación Europea para la Mejora de las Condiciones de Vida y de Trabajo»: 1996–). Sozialdemokraziaren ustez ordea, irtenbidea ez da erradikala izan eta gauza guzietan ezetz esatea, baizik eta proposamenak nola hobetu daitezkeen ikusi eta akordioetara iristea: denbora partzialeko kontratuen gaian adibidez, kontratu hauen baldintzak hobetzen saiatzea (nahi duzunean denbora osoko enplegu batetara itzultzeko aukera izanez adibidez), kontratu hauen feminizazioaren aurka borrokatuz... (Taddéi, 1996: 27-28). Jauregui, Egea eta De la Puertak adibidez, onartzen dituzte denbora partzialeko enpleguei eginiko kritikak, baina beraien ustez behin-behineko neurri bezala onartu daiteke. Aurrerapauso bat den heinean, hobe da pauso hori ematea, leku berean geratzea baino, eta saiatu behar dena da garbi edukitzen, behin-behineko irtenbide bat bakarrik dela: «Promover el trabajo a tiempo parcial es, pues, sólo un paso intermedio (...) Con todo, la ambivalencia del trabajo a tiempo parcial puede llegar a ser preferible, a corto y medio plazo, como opción social a ningún trabajo en absoluto» (Egea, Jauregui eta De la Puerta op.cit., 246-249). Baina gai honetan ere kritiko agertuko zaigu hirugarren perspektiba: sozialdemokraziak 200 urte daramatza behin-behineko aldaketa txikiak onartzen, eta azkenean ahaztu egiten zaio neurri horiek behin-behinekoak zirela, eta betirako bihurtzen dira. Aldaketa txiki hauei esker kapitalismoa egoera berrietara moldatzen joan da, eta azkenean gauza guziak berdín jarraitzen dute. Nahikoa al da behin-behinekoak omen diren erreforma «txiki» hauekin? Ez al litzateke behar sakonagoko aldaketarik? Horrelako neurriak onartzearen arriskua ez al da onartu ondoren ez dutela atzera bueltarik?

Enplegu aztarnategi berriei buruzko jarreran ere ezberdintzen dira sozialdemokrazia eta ondoren aztertuko dugun hirugarren diskurtsoa. Sozialdemokraziaren ustez, enplegu asko sortu daitezke aktibitate hauetan (Jacques Delors-ek eman zien «enplegu aztarnategi berri» izena aktibitate hauei enpleguari buruzko bere Liburu Zuri ezagunean): adineko jendea, umeak edo gaixoak zaintzea; Era-kunde Ez Gubernametaletako lanak; ingurugiroarekin edo teknologia berrie-

kin lotutako lanak; aisialdia, kultura... Enplegua aztarnategi berrien proposamenak, orain arte beste era batetara antolatzen ziren arloetan enplegua sortzea suposatzen du. Orain arte esfera pribatuan antolatzen ziren lan hauek, gehiengotan trukean dirurik jaso gabe, eta norberak nahi zuelako egiten ziren, borondatez, ez soldata bat lortzeagatik. Liberalismoa eta sozialdemokraziaren ustez, gure gizarteetan enplegu «tradizional» bat lortzeko zailtasun ugari daudenez, guztiontzako enplegua lortzeko arlo berri ahuetan enpleguak sortu beharko lirateke. Hirugarren perspektibaren ustez ordea, zaharrak, gaixoak eta umeak ez dira merkantzia bat, ezin da hoiengoen inguruan industria bat antolatu. Jendeak ez ditu umeak edukitzen (edo ez lituzke eduki behar) ume horiek beste pertsona batekin hazteko. Egin behar dena da lan denbora murriztu eta banatu, norberak bere umeak zaintzeko denbora edukitzeko, norberak bere bazkaria erosi eta prestatzeko denbora edukitzeko, eta norberak bere kotxea garbitzeko denbora edukitzeko. Zine-klub bat antolatzen duen jendeak, ez du lan hori diruagatik egiten, baizik eta gustatzen zaiolako eta bere bizitzari zentzu bat ematen diolako. Aktibitate hauetan ere merkatua eta logika ekonomikoa sartuko balira, aktibitate horiek beraien zentzua galduko lukete.

Gazelak ere gure artean batu gaitzen

Hirugarren perspektibaren ustez lan banaketa litzateke guztiontzako enplegu duin bat lortzeko bide posibleetako bat. Guy Aznar, eta batez ere Andre Gorz, frantziarrak lirateke Europa osoan jarraitzaileak aurkitu dituen diskurtso honen autorerik interesgarrienetakoak. Euskal Herrian ere baditu jarraitzaileak diskurtso honek. Imanol Zuberok litzateke hoietako bat. Lehen ere gomendatu dudana bere azken liburuan ordea, lan banaketa bigarren maila batetan geratzen da, soldata sozialaren eztabaida bihurtzen delarik liburuaren proposamen nagusia. Hirugarren perspektiba edo ikuspegi honen barruan gai eztabaidatua izan da soldata sozialaren proposamena, eta nik neu oraindik zalan-tzan nago Andre Gorz-ek gai honi buruz egin duen iritzi aldaketarekin, edo Imanol Zuberok defendatzen duen jarrerarekin (baina gero eta zentzu gehiago ikusten diot jarrera honi).

Esan bezala, hirugarren perspektibaren barnean iritzi ezberdin eta kontra-jarriak aurkitu daitezke soldata sozialari buruz. Andre Gorz orain dela gutxi arte proposamen honen aurka azaltzen zen, karitatea eskubiaren ideia zela esanez, ez duelako ezer egiten gauzak aldatzeko. Soldata sozialak gizartearen banaketa mantentzen zuen: enplegu eta soldata duen jendea batetik, bestetik soldata sozialari esker bizi direnak (enplegua dutenek ordainduriko zergei esker mantenduko litzatekeen soldata soziala). Gorz-en ustez, modu horretan soldata soziala jasotzen zutenak enplegutik bizi zirenekiko menpekotasunean aurkituko lirateke, eta ez litzateke gizarte berdina bat lortuko. Eta gainera lan batetik

bizi ahal izatea, eskubidea izateaz gain betebeharra ere izan beharko luke. Baina Gorz-ek iritiz aldatu du. Gauza ez litzateke aske izatea (gizakia beti bait dago zerbaiten edo norbaiten menpe), baizik eta autonomo izatea. Osasuna edo hezkuntzari buruz hitzegingo bagenuke, dependentzia onartuko genuke: badago jendea ezin duena hezkuntza edo osasuna ordaindu, baina gizarteak ordaintzen dizkie eskubide horiek. Zergatik ez onartu ideia bera soldata sozialaren gaian? Soldata sozialak autonomo izateko aukera emango lieke gaur egun bizitza duin bat emateko eskubiderik ez duen jendeari. Egia da soldata sozialaren proposamenara mugatzen bagara, partxe bat jartzen ari garela, besterik gabe (Eusko Jaurlaritzak orain arte egin duena izango litzateke: gutxieneko soldata pixka bat igo, eta eskuak garbitu). Baina soldata soziala lehenengo pausu bat bezala onartu egin beharko litzateke Zuberoren ustez, neurri sorta handiago baten barruan: lan denboraren murrizketa eta banaketarekin batera adibidez. Eta azken helburua ahaztu gabe: gizarte eredia aldatzea, gizarte berdina eta justuago bat lortzeko. Gizartearen dualizazioa mantentzen duela? Ba agian bai, baina orain dirusarrerarik ez dutenak oraindik ere dependienteagoak dira, eta egoera hori ez da bapatean aldatuko. Eman diezaiegun bitartean duinki bizitzeko aukera bat. Baina baldintzarik eduki behar al luke gizarte soldata honek? Lana/enplegua eskubide izatez gain betebeharrak ere izan behar al du? Zuberoren ustez ez legoke jendea ezertara behartu beharrik. «Soldata sozialari esker jendea ezer egin gabe biziko litzateke, mozkorkean...» esatea, jendearengan konfidantzarik ez izatea litzateke. Eta zergatik ez da hasiko soldata sozialari esker jendea beste gauza batzuk egiten? Nik neuk soldata sozialaren proposamena proposamen kontserbadoretzat hartu izan dut, aldaketa aurreko Gorz-en iritziekin bat eginez, baina agian arrazoi du Zuberok esaten duenean benetan kontserbadorea dena jendearekiko deskonfidantza hori dela. Gainera, bizitza duin bat izateko eskubidea eskubide unibertsal bat badin bada, zer egin behar da lanik egin nahi ez duen jendearekin, hiltzen utzi? Kurioso da nola hiritartasun eskubidea lanari buruzko teorizazioarekin batera sortzen den. Ekonomilari batek, Adam Smith liberal ezagunak, inbentatzen du lana 1776an, bere «Nazioen aberastasuna» liburuan (lanari buruzko lehenengo teorizazioa bait zen). Eta hiritartasun eskubidea (autonomia, berdintasuna...) hamar urte geroago onartuko da lehen aldiz (Frantziar Iraultzan, 1789an). Hiritartasun, berdintasun eta autonomia eskubide horiek lanarekin lotuko dira hortik aurrera. Hiritartasuna, berdintasuna eta autonomia lanak emango ditu. Bai kapitalismoarentzat eta bai marxismoarentzat lana funtsezkoa bihurtzen da, autonomia ematen duelako, hiritar izateko eskubidea. Gertatzen dena da, autonomia lanak ez baino soldatak ematen duela gizarte kapitalistetan, eta gizarte horiek jende guziarentzako soldatarik ematen ez dutenez, jende horrek hiritar izateko eskubidea galtzen duela, autonomo izateko eskubidea. Gizartetik kanpo geratzen dira horrela (EAEn 150.000 langabetu duade 2000 urtean, hoietatik 75.000 pertsonak ez dutelarik inolako dirusarrerarik. 5.000 familia inolako dirusarrerarik gabe bizi dira, «Pobrezia eta ezberdinatasun sozialei buruzko» 2000. urteko Eusko Jaurlaritzaren inkestaren

arabera). Soldata sozialak hiritartasun eskubide hori ziurtatuko luke, gizarteratu egingo luke jende hori. Probokatzailerik eta berriak beraz ideia hauek: zergatik pentsatzen dugu beti soldata soziala jasoko luketenak alferkerian biziko liratekeela? Agian hori da ideia kontserbadorea, eta ez soldata sozialaren proposamena. Eta hala balitz ere, «hiritartasun-bizitza duin bat izateko eskubidea» lortu egin behar al da? Eskubide/betebehar bikotearekin pentsatzen du gizarteraren gehiengoak, eta enplegua ere eskubide eta betebehar izan da orain arte. Ez al zaio konpromezurik eskatu behar soldata soziala jasotzen duenari? Van Parijs-ek ezagun egin zuen «baldintzarik gabeko soldata soziala» defendatzen dutenen ustez ez. Nik ez dut oraindik garbi ikusten egoera.

Rodríguez Braun-ek bai: «La pasión por la igualdad de resultados, que mina la responsabilidad y garantiza que todos obtengamos lo mismo independientemente de nuestros méritos y nuestro esfuerzo, ha animado el crecimiento estatal y ha fundamentado la mediocridad contemporánea» (2000: 123). Soldata soziala eta lan banaketa bezalako neurriekin alferkeria bultzatzen da. Merkatuan bakoitzak egindako lanaren arabera emaitzak lortzen ditu, baina Estatuak irabaziak birbanatzen baditu, zertarako lan egin? «Ni la salud, ni las pensiones, ni la educación son bienes esencialmente públicos sino esencialmente privados» (2000: 57). Eta berdin soldata. Norberak borrokatu behar du bere soldata. Enpleguak badaude, gertatzen dena da jendeak ez daukala enplegu hoietarako eskatzen den prestakuntza. Informazio teknologietan oinarritutako ekonomia berriak enplegu berri ugari eskatuko ditu (EEBBtan gertatu den bezala), eta irtenbidea ez da dagoena banatzea, baizik eta enplegu berri hoietarako prestatzea: «Se busca la intervención de los políticos para terminar con el paro, cuando en realidad el paro es culpa de los propios políticos, por los costes y distorsiones que imponen sobre los mercados laborales y otros en términos de impuestos, cotizaciones a la Seguridad Social, legislación laboral, subsidios de desempleo, negociaciones colectivas centralizadas, etcétera» (2000: 55). Irtenbidea: osasuna, pentsioak, hezkuntza, eta lan mundua pribatizatzea. Liberalismoa: araurik ez, merkatua aske, eta kompetentzia. Gertatzen dena da, ideologia honi jarraituz, kapitala eta botere ekonomikoa (eta ondorioz politikoa, merkatarien gizarteran ekonomiak agintzen bait du) konzentratu egiten direla. Liberalismoak bultzatzen duen kompetentziaren lehenengo fasean, indartsuenak txiki guztiak jaten ditu, eta bigarren fasean ia nahi duena egin dezake (Bill Gates, Microsoft), Estatuaren kontrolik gabe, bestela kompetentzia askearen aurka ariko bait ginatke. Liberalismoaren ondorioa, berak lortu nahi duen helburuaren aurkakoa da: boterea eta dirua konzentratu egiten dira, eta orain Estatuaren kontrolik gabe gainera, zergarik gabe. Eta ondorioz, petrolio edo elektrizitatea liberalizatu ondoren, prezioak mantendu edo igo egiten dira (asko gainera gasolinaren kasuan), eta baita enpresa hoi irabaziak ere. Ze abantaila ditu orduan liberalismoak langileentzat? Rodríguez Braun-ek ordea liberalismoa defendatzen jarraitzen du: «Cuanto más se pague por estar enfermo más enfermos hay, como

ocurre en los países nórdicos. Pero también cuanto más se pague a las madres solteras más madres solteras habrá, tal cual testimonian países catalogados de liberales como estados Unidos. Y cuanto más dure el subsidio de desempleo más durará el desempleo, como se comprobó en varios países europeos (...) El trabajo y el salario ya no son indispensables para vivir: muchos pueden vivir de las prestaciones públicas, que se vuelven crecientemente atractivas a medida que los salarios son más bajos» (2000: 85). Txiste ugari daude Rodríguez Braun-ek esaten duenari arrazoa emateko: sendagile-sorgin batengana omen dihoaz gaixorik dauden hiru pertsona, eta lehenengoari berehala sendatzen omen dio bere gaixotasuna. Bigarrenkoa ere, begiratu bezain azkar sendatzen omen du. Hirugarrenkoa berriz esaten omen dio: « niri ez begiratu eta ez ikutu, funtzionarioa bait naiz, eta bajan bait nago». Estatu indartsua denean, hiritarren zintzotasuna beharrean gezurra eta tranpak bultzatzen dira: zergak ordaintzerakoan edo zerbitzuak jasotzerakoan, gezurra esan edo tranpak egiten dituenak bere egoera asko hobetu dezake. Estatuak aprobetxategiak sortzen ditu («el Estado anima al gorrón»). Arauak, legeak eta kontrolei «esker», hiritarrek ez dute inolako erresponsabilitaterik ezertan: «Las regulaciones son el caldo de cultivo de la irresponsabilidad: se trata de trabajar menos, de cobrar pensiones sin haber ahorrado, de subvencionar todo, es decir, de impedir que sepamos y sintamos lo que cuestan las cosas, y que seamos responsables de nuestro destino» (2000: 94). Estatuaren parte-hartzeak (lan banaketa, soldata soziala...) ez du justizia soziala egiten. Ondorio kaltegarriak ditu gizartearentzat: marginaltasuna, droga, indarkeria, langabezia, familiaren amaiera... Eta gainera, ondorio negatibo hauek gizarteko talde ahulenetan izango lukete eragin handiena: prestakuntzarik gabeko langileak, gazteak, adineko jendea eta emakumeak.

Honela erantzuten du Imanol Zuberok:

Yo creo que la defensa del salario universal garantizado es la única manera de reivindicar hoy la dignidad y el valor del trabajo y, lo que es más importante, de la vida de unas personas que, antes que trabajadoras, son ciudadanas (...) Porque la reivindicación del trabajo hoy no puede desatenderse del hecho de que las personas que desempeñan actividades asalariadas son, por encima de todo, ciudadanas y ciudadanos cuyos derechos de ninguna manera pueden quedarse en la puerta de la empresa. Un salario universal garantizado otorgaría libertad real a las personas para acceder al mercado de trabajo, sin verse forzadas a hacerlo en cualquier condición. Permitiría también compatibilizar a lo largo del tiempo actividades diversas, todas ellas necesarias para el desarrollo personal y para la construcción de un orden social sano: el trabajo para el mercado, el trabajo social, la autoproducción, la formación, el activismo social y político, etc. Y permitiría, sobre todo, descubrir que nuestra obligación fundamental no es la de crear riqueza, sino la de crear sociedad (...) El salario social universal garantizado es una de esas nuevas solidaridades necesarias para producir sociedad, producción sin la cual ninguna otra producción tiene sentido (2000: 301-302).

Guztiontzako enplegua

Guztiontzako enplegua gertu al dago Europan? Ikusi dugu 1994-2000 hazkunde ekonomiko garaian langabezia jeitsi egin dela (%20tik %13ra Euskal Herrian), baina nola jeitsi den ere ikusi dugu: Gipuzkoan 2000ko lehenengo zazpi hilabeteetan 136.000 kontratu izenpetu ziren bitartean, lanean ari zen jende kopurua 800 pertsonatan bakarrik gehitu zen. Hau da, sortzen den enplegu berri bakoitzeko 170 kontratu egiten dira. Behin-behinekotasuna eta errotazioa gehiegizkoak dira beraz: Europar Batasuneko batzbestekoa hirukoizten da (%33-%12). Gainera hazkundera zalantzan jartzen hasia dago 2000ko azaroan, petrolioaren etengabeko gorakadak suposatu duen inflazio igoerarengatik besteak beste. Guztiontzako enplegua ez da beraz gertu ikusten, eta oraindik gutxiago guztiontzako eskubidedun enplegu duin bat. Ez behintzat daramagun bide honetan, nahiz eta langabezia jeitsi ez bait da «pleno empleo» lortzen, baizik eta «pleno sub-empleo». Artikulu honetan enpleguari buruzko hiru diskurtso aztertu ditugu, eta azkenean soldata sozialaren proposamenak lekua kendu dio lan banaketari. Beste batean idatzi beharko dut horri buruz. Artikulu honen helburuetako bat oraindik ere gauzak aldatu daitezkeela pentsatu araztea da. Guztiontzako enplegua (duina), lan banaketa edo soldata soziala, lortu daitezkeela. Ziurrenik kapital-lana borroka tradizionalaren atal bat gehiago osatzen dute, neurri hauek langilei mesede eta kapitalari kalte egiten bait diete (heuren irabaziaz eta boterea murriztu egingo bait lirateke, baina artikulu honetan eman ditugun datuetan ikus daitekeenez, badago horretarako margena). Eta borrokak irabazteko indarra eta gogoak jarri behar dira lehendabizi, eta ondoren indar eta gogo horiek batu. Gazelak geure artean batzeak oraindik ere zerbaitetarako balio dezake.

Bibliografia

- GORZ, A. (1995): *Metamorfosis del trabajo*. Sistema.
 — (1998): *Misérias del presente, riqueza de la posible*. Paidós.
 JAUREGUI, R., EGEA, F. eta DE LA PUERTA, J. (1998): *El tiempo que vivimos y el reparto del trabajo*. Paidós.
 PÉREZ ADÁN, J. (2001): *Las Terceras Vías*. Ediciones Internacionales Universitarias.
 PETRAS, J. (1999): *El informe Petras*. HIRU.
 RIVERA, A. (1999): «El tiempo es oro. Reflexiones desde la historia acerca de la reducción de la jornada y el control del tiempo de trabajo». Lan Harremanak aldizkariko lehenengo zenbakian: «*El tiempo de trabajo. Lan denbora*». 19-37 orr.
 RODRÍGUEZ BRAUN, C. (2000): *Estado contra mercado*. Taurus.
 ROSELL, L. eta TRIGO, J. (2000): *El reparto del trabajo: el mito y la razón*. Instituto de Estudios Económicos.
 TADDEI, D. (1996): *El debate actual sobre la reducción y reorganización del tiempo de trabajo*. EKONOMIAZ aldizkariko 34. zenbakian: *El reparto del trabajo*. 20-30 orr.
 ZUBERO, I. (2000): *El derecho a vivir con dignidad: del pleno empleo al empleo pleno*. HOAC.